



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2020KO APIRILAREN 28AN
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Lur Etxeberria Gurrutxaga.

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Ez dira bertaratu: Joxe Mari Iribar Zapirain eta Itziar Basterrika Unanue.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2020/03/10EKO OHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2020ko martxoaren 10eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- EMANKOR-GUREAK A110 ZAPATEGI UTE (IFK: U75210781) ENTITATEARI, HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIADIARIOETAKO A-78 (ZAPATEGI) EREMUKO ZATI BAT EGOKITZEKO OBRETARAKO UDAL BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.04/2019-0578


EMANKOR-GUREAK A110 ZAPATEGI UTE (IFK: U75210781) entitateak aurkeztutako eskaera aztertu dut. Bertan, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuko zati bat egokitzeko obretarako udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	1.830.812,90 €
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen arabeko hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 16.888,50 €
	Fidantza (%120): 20.266,20 €

TXOSTEN TEKNIKOA

Eskaera eta espedienteko dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, 2020ko urtarrilaren 16an honako txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate andreari
OBRA HANDIAK
A-78 ZAPATEGI EREMUAREN ZATI BAT EGOKITZEKO OBRETARAKO



Usurbilgo Udala

BAIMEN ESKAERARI TXOSTENA

KOKAPENA: A-78 Zapategi, Usurbil

ESKATZAILEA: Elkarlanean Fundazioa eta Gureak S.A.

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2019-578

PROIEKTUAREN AURREKONTUA: 850.077,42 euro (PEM)

HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: 1.191,38 euro. Fidantza (%120): 1.429,66 euro

AURREKARIAK

- 2019ko abenduaren 4an interesatuak egokitze lanak egiteko obra baimen eskaera egin zuen.

TXOSTENA

Jose Ignacio Galarraga Urretavizcaya jaunak, Erkarlanean Fundazioa eta Gureak S.A.-ren izenean, A-78 Zapategi eremuaren zati bat egokitzeko proiektua aurkeztu zuen. Eskaera orriarekin batera aurkeztu zen: memoria, planoak, aurrekontua, hondakinen kudeaketa plana, segurtasun eta osasun azterlana eta baldintza plegua.

Dokumentazioa aztertu ostean honakoa esan daiteke:

- **LANEN XEDEA:** Aurkeztutako memorian honakoa esaten da lanen helburuari buruz: *“El objeto de este documento es el desarrollo de diversas actuaciones encaminadas a la preparación del suelo de lo que será la nueva ordenación prevista para el área A-110 Zapategi de Usurbil.*

(...) se plantea la ejecución de los trabajos de Preparación del Suelo hasta cota de urbanización +0,(...)ninguna de las intervenciones planteadas ni modifica, ni modificará, ni el actual, ni el futuro estado del área.Por el contrario, su ejecución, necesaria en todos los casos, supondrá una mejora objetiva de las condiciones en las que se desarrollará la actuación.

(...) Con la ejecución de estos trabajos de acondicionamiento se trata únicamente de la previa preparación del suelo para ejecutar las redes previstas en relación con el servicio de electricidad, saneamientos, y suministros de agua y gas.”

Egin nahi diren lanak hauek dira:

- Lursailaren egokitzea (lur mugimenduak)
- Instalazioak (Tentsio Ertaina, Ur zikinak, edateko ura eta Gas sarea)

Instalazioen harira esan beharra dago, lanak ez direla eremu barruan proposatzen, hau da, ez dira etorkizunean egon litezkeen eraikinen instalazioak, Urbanizazio Proiektu baten baitan onartu beharrekoak, baizik eta eremuaren kanpo perimetroan egin beharreko lanak dira, sare orokorrak gerturatu eta egokitzeko lanak, hain zuzen.



Usurbilgo Udala

Aurkeztutako proiektuan proposatzen diren lanak 2/2006 Lurzoru eta Hirigintza legearen 207. "Hirigintzako lizentzia behar duten ekintzak" artikuluan aratuta egongo lirateke:

i) Edozein motatako lurzorutan egin beharreko lurmugimenduak eta lurra erauzteko eta berdintzeko lanak.

p) Lurpean eraikitzen diren edo lurpeari eragiten dioten instalazioak.

- HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA ETA FIDANTZA: Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa guztira 1.191,38€-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.429,66 EURO). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
 - Obrak hasteko gehiengo epea: 3 hilabete
 - Obrak geldirik egon daitezkeen gehiengo epea: 3 hilabete.
 - Obrak amaitzeko gehiengo epea: urtebete

ONDORIOAK

Gauzak horrela, A-78 Zapategi eremuaren zati bat egokitzeko obra baimenari **ALDEKO** txostena idazten zaio, honako baldintza hauek betetzeko baldintzapean:

- Obrak aurkeztutako proiektua jarraituz egikarrituko dira, baimenak ez du proiektuz kanpoko esku-hartzerik ahalbidetzen.
- Obrak egiteko kale publikoa okupatu behar bada, udal baimena eskatuko da, hartuko den azalera eta hasierako eta bukaerako egunak zehaztuaz horretarako prestatua dagoen udal-inprimakian.
- Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz

Haxe da izenpetzen duen udal teknikariaren iritzia, hobe oinarritutako iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, 2020ko martxoaren 12an
UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Amaia Illarreta Izeta

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu



Usurbilgo Udala

Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: EMANKOR-GUREAK A110 ZAPATEGI UTE (IFK: U75210781) entitateari, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-78 (Zapategi) eremuko zati bat egokitzeko obretarako udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- **Obrak hasi aurretik:**

Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 1.191,38 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.429,66 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

1.429,66 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: HZ.04/2019-0578*" jarriaz kontzeptuan.

- Carlos Marauri Chasco ingeniariak eta Gurutze Aldanondo Barandiaran eta Jorge Lizarribar Sans arkitektoek 2019ko urrian idatzitako Proiektuaren arabera egin beharko da obra, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- Proiektuz kanpoko esku-hartzerik ez da baimentzen.
- Obra burutzeko zoru publikoan aldamiok edo kontainerra jarri behar izanez gero, udal baimena eskatuko da horretarako prestatuta dagoen inprimakia erabiliz. Hartuko den azalera eta, hasierako eta bukaerako egunak zehaztuko dira.
- Obra baimenaren epeak:
 - Obrak hasteko gehiengo epea: 3 hilabete
 - Obrak geldirik egon daitezkeen gehiengo epea: 3 hilabete.
 - Obrak amaitzeko gehiengo epea: urtebete
- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.



Usurbilgo Udala

- Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
- Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
- Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

3 - ARRATZAIN ZAHAR BASERRIAN BERRITUTAKO ETXEBIZITZARI (SAKABANATUAK 3. SEKZIOA, 22 B) LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: 1996 / 33-04

Tokiko Gobernu Batzarrak, 1996ko otsailaren 27an, MARIA LUISA ARANA ALUSTIZA andeari Arratzain zahar baserria erabat berritzeko udal baimena ematea erabaki zuen honako baldintzen arabera:

- 1996ko urtarrilaren 18an JOSE M. ROTETA ZURIARRAIN aparejadoreak egindako proiektuari egokiturik eraikiko dira obrak.
- Behin obrak amaitu eta hilabeteko epean obren Amaiera Ziurtapena eta Kitapen erreala aurkeztuko dira.
- Aldez aurretik 50.725, . pt.-ko udal zergak ordaindu beharko dira.

Orain berriz, JOSE IGNACIO LIZASO ARANA jaunak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, Arratzain zahar baserrian berritutako etxebizitzaren (Sakabanatuak 3. sekzioa, 22 B) lehen erabilera baimena eskatu du.

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta dagokion ikuskapen-bisitaldia egin ostean, udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andreak, 2020ko martxoaren 17an honako txostena eman du:

BULEGO TEKNIKOA
Udal Teknikariak Alkate andeari
ARRATZAIN BASERRIKO BI EGOITZAK ERROLDAN JASOTZEKO
ESKAERARI TXOSTENA

KOKAPENA: Arratzain zahar baserria, Sakabanatuak 3. sekzioa, 22 B-alai, 21-1. eskubia. Usurbil
ESKAERA DATA: 2020ko martxoaren 12a
ESKATZAILEA: Jose Ignacio Lizaso Arana
Esp. Zenbakia: 1996 / 33-04

AURREKARIAK

- 2019ko urriaren 16an Arratzain baserriko bi egoitzak erroldan jasotzeko



Usurbilgo Udala

- eskaera
- 2019ko urriaren 25ean udal arkitektoaren txostena
- 2020ko martxoaren 12an interesatuak dokumentazio osagarria aurkeztu du

Erlazionatutako espedienteak:

- 33-4. Arratzain Zahar baserriaren berritzea.

TXOSTENA

Jose Ignacio Lizaso Arana jaunak Arratzain baserriaren obra amaierako dokumentazioa aurkeztu du. Eskaera orriarekin batera aurkeztu ditu: memoria, ziurtagiria, dokumentazio osagarria (1996an Udalak emandako obra baimena eta zegokion tasa ordaindu izanaren ziurtagiria), eta gaur egungo plano eta argazkiak. Guztia teknikari gaituak izenpetua eta dagokion Elkargoak ikus-onetsia (2020-03-10), paperean eta formatu digitalean.

Dokumentazioa aztertu ostean honakoa esan daiteke:

- EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZEA: Etxebizitzari lehen erabilera emateko obra amaierako dokumentazioa aurkeztea ezarri zitzaion baldintza bezala aurreko txostenean. Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, eta kontuan izanda 1996. urtean egikaritutako obra bat dela, dokumentazio osatua eta ondo justifikatua aurkeztu dela esan beharra dago, eta, beraz, ontzat ematen da.

ONDORIOA

Gauzak horrela, Arratzain baserriari lehen erabilera baimena emateari **ALDEKO** txostena idazten zaio.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe. Udalari jakinarazten zaiona dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, 2020ko martxoaren 17an.

UDAL ARKITEKTOA
Izta.: Amaia Illarreta Izeta

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: Arratzain zahar baserrian berritutako etxebizitzari (Sakabanatuak 3. sekzioa, 22 B) lehen erabilera baimena ematea.



Usurbilgo Udala

BIGARRENA: Erabaki hau interesatuari ematea.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:45etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.